

# Hizkuntza- nahasmenduak haur elebidunen garapenean: ebaluazioa eta esku-hartzea



**Ira. 20 - Ira. 21 2024**

**Kod. O21-24**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 20 - Ira. 21 2024

**Kokalekua**

Lesakako Harriondoa Kultur Etxea

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



## Azalpena

Askotariko entzuleentzako Uda Ikastaro teoriko-praktikoa da, ingurune elebidun eta eleaniztunetan aurkitzen diren hizkuntza-garapen nahasmenduak hobeto ezagutu, ebaluatu eta eskuhartzean zentratuko dena. Hiru multzotan antolatu da: lehenengo multzoko hitzaldietan hizkuntza nahasmenduaren hautematea eta balorazioaren alderdi berriak aurkeztu eta aztertuko dira eta profesionalen prestakuntzaz hitz egingo da. Goizeko saio-bukaerako hitzaldiak Lesakan azkeneko 10 urteetan antolatu diren Jardunaldiak bultzatu dituzten kezka, eginbeharrak eta egindako aurrerapausoak bilduko ditu.

Bigarren saio-multzoan familiei zuzendutako hitzaldiak izango dira, mahai-inguru antzeko saio bat ere bai, guraso-elkarte batzuetako kideek beren bizipenak eta beharrak aurkeztuko dituztena. Tailer bat ere aurreikusten da familientzat, haurrak gaitasun sozialetan trebatzeko. Eta amaieran, hitzaldia izango da nahasmendua duten haurren familiekin eskuhartzean eskarmentu handiko nazioarteko erakunde bateko profesional batena.

Hirugarren blokean diagnosiaren eta eskuhartzearen alderdi zehatzagoak izango dira hizgai nagusi. Hizkuntza-nahasmendua diagnostikatzeko (euskarazko edota erdarazko) tresnekiko esperientziak aurkeztuko dira.

Ikastaroan zehar itzulpena izango da euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara.

## Helburuak

Haurren hizkuntza-garapeneko nahasmenduaren inguruko profesionalak ikerkuntzan, hezkuntzan eta praktika klinikoan egiten ari diren aurrerapausoen berri jaso eta zabaltzea.

EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko haur elebatar ete elebidunen garapen tipiko eta ez-tipikodunen diagnosirako eta esku-hartzeko tresna eta prozeduren garapena bultzatu eta babestea.

Familien eta askotariko esparruetako (osasun, gizarte, hezkuntzako) profesionalen arteko elkarrizketa eta elkarrekintza sustatzea, hizkuntza-nahasmenduen hautemate eta ebaluazioa zein tresnak eta praktikak hobetzea.

## Antolakuntza



## Lankidetzak



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD



LESAKAKO  
UDALA



NUESTRA NECESIDAD ES TU NECESIDAD  
GURE BEHARRA, ZURE BEHARRA



NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • PROVENCE  
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • PROVENCE

# Programa

2024-09-20

**Hitzaldien izenburuak bi hizkuntzetan agertzen dira egitarauan, Halere, lehenengo izenburua euskaraz ageri bada, hitzaldia euskaraz izango da, eta lehenengoa gaztelaniaz ageri bada, hitzaldia gaztelaniaz izango da / Los títulos de las conferencias aparecen en ambos idiomas en el programa. No obstante, si el primer título aparece en euskera, la charla será en euskera, y si el primero aparece en castellano, la conferencia será en castellano.**

---

09:30 - 10:00	Erregistroa / Registro
10:00 - 10:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra <b>Maria José Ezeizabarrena Seguro</b>   UPV/EHU - Irakasle-Ikertzailea / Profesora - Investigadora
10:15 - 11:15	“Intervención en edades tempranas en niños/as con dificultades del lenguaje / Esku-hartzea hizkuntza-arazoak dituzten haur txikiengan” <b>Patricia Piqueras Gonzalez</b>   Centro de Atención Temprana de Pamplona / Iruñako Laguntza Goiztiarreko Zentroa - Logopeda <b>Maria Angeles Dominguez Parron</b>   Centro de Atención Temprana de Pamplona / Iruñako Laguntza Goiztiarreko Zentroa - Logopeda
11:15 - 12:00	“Necesidades y apoyos a la intervención educativa de los niños con trastornos del lenguaje/ Hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurren eskuhartzean dauden beharrak eta euskarriak” <b>Sonia Aristregui Huarte</b>   Gobierno de Navarra. Educación / Nafarroako Gobernua. Hezkuntza. - Jefatura de Negociado / Bulegoburua
12:00 - 12:30	Atsedentarte / Descanso
12:30 - 13:15	“Formación del profesorado de Audición y Lenguaje / Entzumena eta mintzairako irakasleen prestakuntza” <b>Isabel García del Real Marco</b>   UPNA - Profesora-Investigadora / Irakasle-Ikertzailea
13:15 - 14:00	“Evolución del abordaje de los trastornos del lenguaje en estos 10 años y perspectivas de futuro/ Hizkuntza-nahasmenduekin jokatzeko moduen garapena azkeneko hamarkan eta etorkizunean” <b>Belen Compains Beaumont</b>   Osasunbidea - Pediatra
14:00 - 15:30	Atsedentarte / Descanso
15:30 - 16:30	“Experiencias de familias de niños con trastornos del lenguaje / Hizkuntza nahasmendudun familien bizipenak” <b>Idoia Altuna Errandonea</b>   Asociación GUZTIOK elkarte - Miembro / Kidea <b>Patricia Royo Malo</b>   Asociación de Enfermedades Raras - Presidenta / Lehendakaria <b>Alicia Solavera Sánchez</b>   TEL Euskadi - Presidenta / Lehendakaria <b>Doris Salazar</b>   TEL Navarra - Presidenta / Lehendakaria
16:30 - 17:30	“Taller de habilidades sociales para familias y niños con trastornos de lenguaje / Hizkuntza-nahasmendua duten haurren eta familientzako trebetasun soziala lantzeko tailerra”

18:00 - 19:00 "Centro John Tracy Guiando y Animando a las Familias Bilingües de Niños Pequeños con Necesidades Especiales del Lenguaje / John Tracy Klinikako aholkularitza esperientzia hizkuntza bereganatzeko arazoak dituzten familia elebidunekin"

**Angela Stokes** | John Tracy Clinic - MEd, LSLC Cert. AVEEd (**Zoom bidez parte hartuko du**)

**Carolina Saife Monteiro** | John Tracy Center - MS. Ed DHH Teacher (**Zoom bidez parte hartuko du**)

---

## 2024-09-21

09:00 - 09:45 "Lehen hezkuntzako haurren hizkuntza nahasmenduaren diagnosirako bi tresna: HIGA & HEGA /HIGA & HEGA, dos instrumentos para el diagnostico del trastorno del desarrollo del lenguaje en educación primaria"

**Marie Pourquoié Bidegain** | Investigadora / Ikertzailea

---

09:45 - 10:30 "KGNZ, Hizkuntza-diagnosi klinikorako tresna estandarizatu labur bat (1-4 urte) / CDI vasco: un instrumento estandarizado breve para el diagnóstico clínico en euskera (1-4 años)"

**Iñaki Garcia** | UPV/EHU - Irakasle-Ikertzailea / Profesor-investigador

**Maria José Ezeizabarrena Seguro** | UPV/EHU - Irakasle-Ikertzailea / Profesora-Investigadora

**Aroa Murciano Eizagirre** | UPV/EHU - Irakasle-Ikertzailea / Profesora-Investigadora

---

10:30 - 11:15 "HGNaren diagnostiko eta esku-hartzea EAEn: hezkuntza-sistemako erronkak/ Diagnóstico del TDL e intervención en la CAV: retos del sistema educativo"

**Ainhoa Leyaristi Oñederra** | UPV/EHU - Doktoregaia / Investigadora pre-doctoral

---

11:15 - 11:45 Atsedena / Descanso

---

11:45 - 12:30 "HGN diagnosis euskara-frantsesa elebidunetan/ Diagnóstico TDL en bilingües euskera-francés"

**Joana Itzaina** | Euskal Ortofonisten Elkarte - Ortofonista

---

12:30 - 13:15 "Funciones ejecutivas y habilidades lingüísticas en niños con déficits en el desarrollo del lenguaje./ Hizkuntza-garapenean gabeziak dituzten haurren funtzio exekutiboak eta hizkuntza-trebetasunak"

**Gary Morgan** | Universitat Oberta de Catalunya - Profesor-Investigador / Irakasle-Ikertzailea

---

13:15 - 13:45 Laburpena eta Itxiera / Resumen y Clausura

---

## Zuzendaritza



### **Belen Compains Beaumont**

Osasunbidea

---

Medikuntzan lizentziatua naiz Nafarroako Unibertsitatean, pediatrian espezializatua, BAME bidez, Nafarroako Ospitale Gunean. 32 urtez aritu naiz lehen mailako arretako pediatria lanetan. Nafarroako ELAIA eta GAT elkarteetako bazkide sortzailea, biak profesionalen eta familien arteko sare lanean aritzen direnak garapen gaietan. Haur euskaldun elebidun eta eleaniztunetan hizkuntzaren garapenaren nahasmenduei buruzko 10 udako ikastaroetako zuzendaria izan naiz; lehen hirurak NUPekin, eta hurrengo zazpiak UPV/EHUrekin. Fisioterapia/hidroterapia eta neurogarapenari buruzko 4 ikastaro ere zuzenduak ditut NUPen. Irakasle laguntzailea naiz NUPeko Arreta Goiztiarreko berezko tituluan. Pediatria eta arreta goiztiarreko elkarteetako hainbat kongresu eta bileratan aurkeztu izan ditut komunikazioak. ANPE garapeneko pediatria-taldeko eta SVNP pediatria sozialeko taldeko kidea naiz. Egun, doktorego-tesia prestatzen ari naiz, lehen mailako arretako pediatriak hizkuntza-nahasteen detekzioan, balorazioan eta esku-hartzean duen eginkizunari buruzko



### **Maria José Ezeizabarrena Segurola**

Letren Fakultatea - Facultad de Letras. ELEBILAB (UPV/EHU)

---

Irakasle Osoa (UPV/EHU), Euskal Filologian Lizentziatua (UPV/EHU) eta Hizkuntzalaritzan Doktore (U. Hamburg, Alemania). Irakasle eta Ikertzaile Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean, eta ELEBILAB Ikertaldeko zuzendaria (UPV/EHU). Ikerketa gaiak: elebitasun goiztiarra; haurren keinuak, hiztegia, gramatika eta fonologia; hizkuntzaren erabilera hizkuntza-ukipen egoeratan eta baita hizkuntza-garapena hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurren ere.

## Irakasleak



### **Idoia Altuna Errandonea**

---

Alde bietan gorreria sakona eta Citomegalobiruseko infekzio batek eragindako kalte erantsiak dituen kokleako inplantea duen neskato nerabe baten ama naiz. Industria Antolakuntzako Goi Mailako Ingeniaritzako titulua dut, eta ekoizpen-arduradun gisa lan egiten dut erakunde publikoei zerbitzuak eskaintzen dizkien enpresa batean (hainbat udal, Aldundia, Eusko Jaurlaritza). Bortzirietako Guztiok Elkarteko lehendakariordea eta hasieratik bazkidea naiz, eta baita bazkide ere kokleako inplantearekin zerikusia duten edo behar bereziak dituzten haurren zenbait guraso-elkartetan ere, hala nola Eunate, Aransgi, AICE eta Lagundu elkarteak. Ahozko Entzumen-terapiaren (AHT) bidez ezarritako haur gorren birgaitzearen defendatzaile sutsua naiz eta 2014ko ekainean Los Angelesko John Tracy Center-eko Nazioarteko Programan parte hartu nuen gure familiarekin batera. Parte hartu dut behar bereziak dituzten haur elebidunen hizkuntza garapenarekin lotuta, azken 10 urteetan Lesakan (eta Beran), NUPekin edota UPV/EHUrekin batera, antolatu diren ikastaro guztien antolaketan.



### **Sonia Aristregui Huarte**

CREENA

---

Pedagogian lizentziatua (Nafarroako Unibertsitatea) eta diplomatua Magisteritzan, Entzumen eta Hizkuntzan (U. Pontificia de Salamanca). Irakurtze eta idazte nahasmenduetan eskuhartze edukatibo eta klinikoan trebatua (U. Complutense) eta graduondoko tituluduna da errehabilitazio eta eskuhartze neurokognitiboan. Aritu aditua da aholkularitza pedagogikoan (Asociación Síndrome de Down de Navarra), aholkulari eta terapeuta bezala (Asociación Navarra de Autismo) eta baita pedagogo lanetan ere (Centro Neurológico de Atención Integral). hainbat ardura eta lanpostuetako ardura izan ditu administrazioan 2000. urtetik aurrera lan horiekin batera aurrera eraman dituenak, besteak beste, Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroko (CREENA/NHEBZ) entzumen urritasun eta ikasteko eta hitz egiteko nahasmenduen lantaldean, edo Portaera Programako koordinatzaile lanetan, 2023ko iraila arte. Egun, hezkuntza-beharren azpiataleko arduraduna da Nafar Gobernuko Hezkuntza atalean. Parte-hartutako formakuntza eta berrikuntza programa ugarietan, Navarrabiomed neurologia pediatrikoko ikertaldean. Nafarroako arreta goiztiarreko AITANA elkarteko lehendakariordea da.



## **Belen Compains Beaumont**

Osasunbidea

---

Medikuntzan lizentziatua naiz Nafarroako Unibertsitatean, pediatrian espezializatua, BAME bidez, Nafarroako Ospitale Gunean. 32 urtez aritu naiz lehen mailako arretako pediatra lanetan. Nafarroako ELAIA eta GAT elkarteetako bazkide sortzailea, biak profesionalen eta familien arteko sare lanean aritzen direnak garapen gaietan. Haur euskaldun elebidun eta eleaniztunetan hizkuntzaren garapenaren nahasmenduei buruzko 10 udako ikastaroetako zuzendaria izan naiz; lehen hirurak NUPEkin, eta hurrengo zazpiak UPV/EHUrekin. Fisioterapia/hidroterapia eta neurogarapenari buruzko 4 ikastaro ere zuzenduak ditut NUPen. Irakasle laguntzailea naiz NUPEko Arreta Goiztiarreko berezko tituluan. Pediatria eta arreta goiztiarreko elkarteetako hainbat kongresu eta bileratan aurkeztu izan ditut komunikazioak. ANPE garapeneko pediatria-taldeko eta SVNP pediatria sozialeko taldeko kidea naiz. Egun, doktorego-tesia prestatzen ari naiz, lehen mailako arretako pediatrak hizkuntza-nahasteen detekzioan, balorazioan eta esku-hartzean duen eginkizunari buruzko



## **Maria Angeles Dominguez Parron**

---

Logopedian diplomatua Murtziako Unibertsitatean. La Salle Unibertsitate Zentroko Arreta Goiztiarrean aditu tituluduna. Prestakuntza du jaioberrien logopedian, eta bereziki Jaioberrien Zainketa Intentsiboetako Unitate eta jaiotze goiztiarreko haurren disfagian. Edoskitzaroko aholkularitzako prestakuntzaduna. Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan lan egiten du.



## **Maria José Ezeizabarrena Segurola**

Letren Fakultatea - Facultad de Letras. ELEBILAB (UPV/EHU)

---

Irakasle Osoa (UPV/EHU), Euskal Filologian Litzentziatua (UPV/EHU) eta Hizkuntzalaritzan Doktore (U. Hamburg, Alemania). Irakasle eta Ikertzaile Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean, eta ELEBILAB Ikertaldeko zuzendaria (UPV/EHU). Ikerketa gaiak: elebitasun goiztiarra; haurren keinuak, hiztegia, gramatika eta fonologia; hizkuntzaren erabilera hizkuntza-ukipen egoeratan eta baita hizkuntza-garapena hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurrengan ere.





## **Isabel García del Real Marco**

UPNA

---

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasle eta Ikertzailea da. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasle graduetan irakasle dihardu Entzumen eta Hizkuntza aipurako irakasgai batzuetan. Doktorea da. Hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko doktorego-tesia idatzi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU, 2015). Liburu eta aldizkari espezializatuetan argitaratutako hainbat artikuluren egilea da, eta hizkuntzaren bereganatzeari buruzko hainbat ikertaldetako kide izan da eta da. Ikerlerro nagusia eskola adineko haurren ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapena du, bereziki, gaztelania lehen edo bigarren hizkuntza bezala duten haurrena. Interes berezia du komunikatzeko gaitasunaren garapenean eragina izan dezaketen faktoreekin, besteak beste, sorburu hizkuntzak, eskolaz kanpoko hizkuntzaren erabilerek, hizkuntzekiko motibazioek, edo nahasmendu-gaixotasun pilaketak.



## **Iñaki Garcia**

Iñaki Garcia Fernandez irakasle agregatua da UPV/EHUko Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia Sailean. 1991an lizentziatu zen Psikologian eta 2001an doktore-tesia defendatu zuen UPV/EHUko Psikologia Fakultatean. 2000-2012 bitartean irakasle izan zen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. 2012tik aurrera UPV/EHUko Psikologia Fakultatean irakaslea da Portaera Zientzien Metodologia alorrean, bertan ikerketarako metodologiako ikasgaiak irakasten ditu. Ikerketa arloan ELEBILAB ikerketa taldeko kidea da, bertan haur txikien komunikazio garapenarekin lotura duten gaiak aztertzen ditu. 20 Ikerketa-proiektu baino gehiagotan parte hartu du, eta ikerketa jarduera horren ondorioz, 30 artikulua, 2 liburu eta 18 liburu-kapitulu argitaratu ditu.



## **Joana Itzaina**


Euzkaraz eta frantsesez lan egiten duen ortofonista naiz. Haur Euskara-Frantses elebidunen hizkuntza garapen tipiko eta atipikoaren azterketak interesatzen nau, batez ere diagnostiko eta esku hartze bideen zehazteak. Euskal Ortofonisten Elkartearen parte hartzen dut, besteak beste, gai horien jorrazteko.



## **Ainhoa Leyaristi Oñederra**

---

Ingeles Ikasketetako Gradua Euskal Ikasketetako aipamenarekin egin ostean, Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentala masterra (UPV/EHU) egin nuen. Nire Master Amaierako Lanean Hizkuntza-Garapeneko Nahasmendua (gaztelaniaz TEL edo TDL gisa ezagutzen dena) gaztetxo euskaldunetan ikertu nuen eta proiektu honen harira, Euskaltzaindiaren Mintzola 2023 saria jaso nuen. Zenbait hitzaldi eta ikastaro emana naiz gai honen inguruan eta, egun, Hizkuntza-Garapeneko Nahasmendua euskara-gaztelania elebidunetan ardatz, doktoretza tesia egiten ari naiz ELEBILAB ikertaldean (UPV/EHU).



## **Raquel Masa Andrades**

---

Psikologian graduatua naiz Deustuko Unibertsitatean, eta Psikologia Sanitario Orokorrean Masterra unibertsitate berean. Bilbon aritzen naiz psikologo gisa, batez ere nerabeekin eta helduekin, bai eta bikoteekin eta familiekin ere. Sexualitateari, bullying-ari eta kudeaketa emozionalari buruzko tailerrak ere ematen ditut ikastetxeetan eta enpreetan. 2018tik, TEL-Euskadi elkartearekin kolaboratzen dut, eta gizarte-trebetasunei buruzko tailerrak egiten ditut elkarteko kide diren haur eta nerabeekin, bai eta haur eta gazteekin ere, HGN diagnostikorik izan ez arren, beren trebetasunak landu behar baitituzte. Arlo sozial eta emozionalarekin lotutako hainbat arlotan dituzten zailtasunak lantzen ditugu. Tailer horietan agerian geratu da hainbat alderdi landu behar direla familian, hala nola autoestimua, autonomiaren sustapena edo familia barruko komunikazioa. Hori dela eta, bi lankiderekin batera, familia osoarekin hautatutako gaia lantzeko saioak egin ohi ditugu, kide bakoitzak ikasitakoaren alderdi praktikoak eraman ditzan.



## **Gary Morgan**

---

Garapen kognitiboan eta hizkuntzaren garapenean interesa duen haur-psikologoa naiz. Nire ikerketa eta irakaskuntza jardunean ondoko galderari erantzuten ahalegintzen naiz: haurrek hizkuntza eta trebetasun sozialak eta kognitiboak nola garatzen dituzten, trebetasun horiek nola erlazionatzen diren eta zergatik kasu batzuetan garapen natural hori eten edo kaltetzen den.



### **Aroa Murciano Eizagirre**

---

Ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea da UPV/EHU. Hezkuntza Zientzietan Doktoa. Psikopedagogia ikasketak egin zituen, eta hizkuntzen didaktika eta kulturartekotasunean espezializatu zen EKOMU masterrean. Ikuspegi sozio-diskurtsiboa du oinarri eta irakasleen prestakuntza eta hizkuntzen ikas-irakaskuntza dira bere ikerketa gai nagusiak. MIKER (HUHEZI) ikertaldean aritu da urte askotan, eta egun, ELEBILAB (UPV/EHU) ikertaldean ikertzaile eta irakasle dihardu Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (UPV/EHU, Gasteiz).



### **Patricia Piqueras Gonzalez**

---

Lopopedia Diplomaduna, Salamancako Universidad Pontifician. Magisteritza Diplomaduna Haur hezkuntzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Logopeda dihardu Nafarroako Arreta Goiztiarrean 2007z geroztik.



### **Marie Pourquié Bidegain**

IKER

---

Neuropsikohizkuntzalaria da. Euskal Filologiako (Baionan eta Gasteizen) eta Hizkuntzaren Zientzien lizentziatura eta Masterra (Parisen) egin zituen. Gero, neuropsikohizkuntzalaritzan eta afasiologian espezializatu zen, ikerketa-masterra eta doktoretza eginda Le Mirail Unibertsitatean (Tolosa, Frantzia, 2011an). Ondotik, doktoretza-ondoko egonaldia egin zuen Montrealeko ortofonia-eskolan, Donostiako BCBL eta Baionako IKER ikerketa-zentroetan. Hizkuntzalaritza klinikoan eta psikohizkuntzalaritza aplikatua dihardu euskaldun eta eleanizdunengan hizkuntza arazoak hautemateko tresnak garatzen Euskal Herriko, Europako eta Europaz kanpoko diziplinarteko taldeetan.



### **Patricia Royo Malo**

Estudiante

---



### **Carolina Saife Monteiro**

---



### **Doris Salazar**

---



### **Alicia Solavera Sánchez**

---

TEL-EUSKADI elkarteko lehendakaria da. Beste 8 familiekin batera Asociación de Familias y Amigos de Personas con Trastorno Específico del Lenguaje TEL-EUSKADI elkartea sortu zuen 2013an. Orduz geroztik dihardu lehendakari lanetan, aldi berean neurogarapeneko nahasmendu honetan zein beste batzuetan formatzen, TEL/TDL (euskaraz AHAE/HGN) nahasmendua dutenen kolektiboaren beharrak erakundeen aurrean aldarrikatzeko eta familiak, hezitzaileak eta nahasmenduarekin interesatutakoak orientatzeko.



## **Angela Stokes**

---

Ahozko hizkuntzaren ulermeneko eta adierazpeneko aditu tituluduna (AG Bell Academy) izateaz gain, bi master-titulu ditu, bata Hezkuntza zientzietan (U. South California/John Tracy Center (JTC), AEB) eta bestea, 2013an, Hipoakusikoen hezkuntzan arreta berezia duen Hezkuntza Bereziko masterrean (U. San Diego/ JTC, AEB). Egun, Mount Saint Mary's U./JTCko Hipoakusikoentazko Hezkuntza Master eta Espezializazio Programako zuzendarietako bat da, 2017z geroztik. Irakasle eta Hezkuntza zerbitzuetako zuzendari aritu zen Kaliforniako Los Angeleseko JTCn. Hezitzaile elebiduna da. JTCn entzumen urritasuneko haurren familiak aztertzen ditu eta laguntza ematen die, gurasoentzako prestakuntza-ikastaroen bidez, ikaskuntza goiztiarrerako, eskolaurreko ikaskuntzarako zein ikasketa ibiltarietarako tokiko hezkuntza-zerbitzuak koordinatuz, eta gurasoentzako nazioarteko prestakuntza-saioak antolatuz (ingelesez eta gaztelaniaz).

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-09-20 ARTE
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	59,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	-	21,00 EUR
<a href="#">OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</a>	-	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-09-20 ARTE
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	59,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	-	21,00 EUR

[OSAKIDETZAKO  
GONBIDATUAK](#)

-

0 EUR

# **Kokalekua**

## **Lesakako Harriondoa Kultur Etxea**

Komentu Kalea 1. Lesaka

Nafarroa